

noaua



**Ostiralean Zubietako
errebote plazan,
'Mikra' ikuskizuna**

**Kultur Bira:
Larunbatean Aginagan,
Idoia Asurmendi
eta Floxbin**



**Ekhi Camino:
“Gipuzkoako
eta EAEko
notarik onena
atera nuen
selektibitatean”**

**5. or.
KAFFE GARAIA
Ibon Alberdi apaiza:
“Caritasek 40 familia
atenditzen ditu hilero
Usurbilen”**

**2021-2022 IKASTURTERAKO
DBH ZIENTZIATARAKO: FISIKA-KIMIKA
ETA MATEMATIKA IRAKASLEA
BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO**

BALDINTZAK

- Zientzian Graduondoa (Master Titulu Ofiziala edo Lizentziatura)
- DBHko Hezkuntza- Gaitasuneko Masterra
- EGA (Euskara Gaitasun Agiria)edo baliokidea

ESKAINTZAREN LANALDIA:

- Lanaldi osoa

BALORATUKO DA

- Eskarmentua

*Izen eman edota curriculumak
aurkezteko azken eguna:*

Uztailaren 14.

Curriculumak

usurbil@ikastola.eus-era bidali

Elkarrizketarako Deitu:

943-361216

**INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT
HAIN DIBERTIGARRIA IZAN**

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77
info@begi-bistan.com



**ERRESERBATU
HEMEN**

**EUSKADI
BASQUE COUNTRY**



SAGARDOA rou-
te
bosque origin



**musika
bulegoa**
musika bulegoa
musika bulegoa



**bertsozale
elkartea**



2021

**Sagardoak
elkartzen
gaitu**

**Eneritz
Furyak
kontzertua**



uztailak 17 de julio



19:00



ASTIAZARAN sagardotegia



15 euro

39 euro

Sarrera + Pintxoak + Sagardo tragoa / Sarrera + Pintxoak + Sagardo tragoa + Afaria



sagardoa.eus



GIPUZKOAKO SAGARDOTEGIAK
ELKARTZEN
SAGARDOTEGIAK
SAGARDOTEGIAK

SAGARDOA rou-
te
bosque origin



**musika
bulegoa**



**bertsozale
elkartea**



sagardoa



**GIPUZKOAKO
TURISMOA**



**EUSKADI
BASQUE COUNTRY**



Albisteak iruditan

“Gure herria, gure hizkuntza, bertatik bertara”

Bertatik Bertara kanpaina abiatu du UEMA udalerri euskaldunen mankomunitateak, eta Usurbilgo Udalak bat egin du kanpainarekin. Kanpainaren helburua da udalerri euskaldunetara jotzen duten bisitariek zein bisitariek harreman zuzena izaten duten zerbitzuen sektoreko arduradun eta langileek euskara aintzat hartzea. Jatetxe eta tabernentzako 4.000 mahai gaineko banatuko ditu udalak kanpaina bultzatzeko.

Mahai gainekoek zenbait oinarritzko esamolde euskaraz zein beste hainbat hizkuntzatan nola esaten diren erakusten dute. Udalak halako 4.000 banatuko ditu herriko ostalarien artean. Horiek eskuratu ahal izateko telefonoz deitu beharko dute 943 37 19 99 zenbakira edo administrazioa@usurbil.eus helbidera idatzi.



Udalak halako 4.000 mahai-estalki banatuko ditu herriko ostalarien artean.

Laburrean

Eremu horian segitzen du Usurbilek

Aste hasieran, 100.000 biztanleko 14 eguneko 237,79ko intzidentzia zuen koronabirusak udalerri honetan. Eremu horian egoten segitzen du. Buruntzalde erdia eta Gipuzkoa eremu gorrian dira.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Datorrena, udako oporren aurreko azken astekaria

Udako etenaldiaren atari honetan, azken aurreko astekaria duzue eskuartearen. Azkena astebete barru, uztailaren 23an. Ordurako ohar edo zorian agurrik baduzue erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazi.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubieda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre Zapirain

Krimen bat idatzi da Usurbilen. Elizako dorrearen hormetan odol gorri kolorez eman du kriminal gaiztoak bere gaiztakeriaren berri eta mendeetako euri jasa ez da aski izango halakorik ezabatzeko.

Amaia Ezpeldoi pentsakor dago berriki mantu zuriarekin estali duten gorpua alboan. Horrelako kontuak egun grisetan gertatu ohi dira zeruak kolore bat edo beste izanda ere. Baina noir zinemako eszenen pare, egun honetan ere euri biziak blaitzen ditu dema plazako harriak egarriz diren loreen iraupena egun batzuk gehiagor luza-tuz.

“Susmagarririk?”. Zientifikakoen txostena irakurri berritan —tinta urdina euri tantek lausotzen dute—, inspektore laguntzaileak hasperen besterik ez du egin. “Etxebeste delako hori atzeman beharko dugu kontuak argi diezazkigun”. Alabaina, usurbildarrak ez dira aski enpatiko ageri egoerarekin. Desafiozko begiratuaren atzean hartzen dute ezkutu beste babes neurri guztiak agortzen zaizkienean. Hitz gutxikoak dirudite, eta Ezpeldoi inspektorearen egitekoak behar baino gehiago luzatuko dituztela suma daiteke. Herri guztiek dituzte beren tabuak, isilpean

Etxebestetarrak I



“Herri guztiek dituzte beren tabuak, isilpean gorde behar diren sekretuak”.

UGAITZ AGIRRE

“Amaia Ezpeldoi pentsakor dago berriki mantu zuriarekin estali duten gorpua alboan”

gorde behar diren sekretuak. Eta itogarria suertatzen bada estrategia hori, beti dago amnesia kolektiboa praktikatzea, ez jakintasuna behin-behineko babesleku aproposa baita besterik ez dagoenean.

Kalez kale ibili da inspektorea. Mendebalde basati haren sekulako antza hartzen dio: etxe bakoitzean bandera bat eta lagun gutxiko jabea eskopeta batekin aterako balitz, Euskal Herria eta Diaspora nahastuko lituzke. Liburutegitik buelta bat eman du. Herriko informazioa eskuratu nahi du. Baina liburuetan idatzita geratu nahi izan dena bakarrik age-

ri da eta lerro artean irakurtzeko tarte gutxi uzten dute hain ondo borobilduta dauden esaldi ponposoek. Idatzita geratu nahi ez dena ezinezkoa da liburu artean bilatzea. Halere, Etxebeste baten oinatzak topatu dituelakoan dago Ezpeldoi.

Inperioaren zerbitzura lanean jardun eta Indietatik itzuli ostean, bere handitasunaren froga izango ziren donazioak egin zituen Usurbilgo herrian. “Baliteke haren ondorengo bat izatea oraingo krimenaren egilea”, pentsatu du ahots goran inspektoreak lokartu ezinean sabaiari begira. Atepetik sartu dioten eskutitza ikusi berri-tan, jauzi bizian joan da hura irakurtzera. Ez sartu muturrik deitzen ez zaituzten tokian mekanografiatuta. Norbaitek trapu zaharrak astin ez ditzaten nahi du. Ganbaretan edo garajeetan ondo gordeta dau-

den trapu zahar horiek hobe orain artean bezala pentsa dezake batek, baina Ezpeldoi ez zaio halakorik aski. Gorpu bat agertu da elizaren dorre azpian eta aitzaki guztiak merke dira.

Biharamunean tabernan pasa ditu orduak. Idatzi nahi ez dena han ito nahi izaten baita. “Non aurki dezaket Etxebeste?” Inork ez dio erantzun. Orduen buruan galdegin du berriz, eta zoko ilunean ardo berotan gatibata dagoenak zera erantzun dio: “Etxebeste jendea, Ezpeldoikoa bezain sentimendu gabea”. “Beraz inork ez daki ezer”.

Dorreari begiratu dio jada ilunduta dela. Behe laino sartu da eta fokuen argi laranja medio, badirudi sutan hasi dela eliz dorrea. Ilusio optiko bat besterik ez da, baina nahikoa izan da zurrutear zirenak kanpora ateratzeko. “Dorrea sutan dago!”, oihukatzen dute. “Indiarren maldizioa da!”, diote zoro moduan. Ezpeldoik zur eta lur begiratzen die herritarrei, ulertu ezinean zer geratzen zaien. “Ilusio optiko bat besterik ez dela”. Iskanbila handitzen doa, baina: ez da ilusioa. Benetan elizaren dorreari sua eman dio giza gaiztoren batek eta edergailu guztiak belzten doaz su garrrak medio.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaueus

Ibon Alberdi, Aginaga eta Usurbilgo apaiza: “Pandemia hasi zenean, lehenengoak izan ginen ateak ixten”

Ibon Alberdi Urrestarazu Lasarte-Oria, Usurbil eta Aginagako apaiza da. Pandemia hasi zenean, Usurbilgo elizak sare bat antolatu zuen zailtasunetan zeuden herritarrak laguntzeko. Horretaz gain, kale gorrian zeuden zortzi migratzaile gazteri aterpe bat eman zien. Gai hauetaz luze zabal jardun dugu Ibonekin, baina ez dira hizpide bakarrak izan.

NOAUA!ren urteurrenaren aitxakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte? Zertan ari zinen?

Ibon Alberdi: Duela hogeita-bost urte seminarioan nengoen, eta seminarioan nengoe-la soldaduska egin behar izan nuen. Objektore ala intsumiso egin, barne-eztabaida hori izan ondoren, objektore egin nintzen azkenean. Adinekoak zaintzen, paseatzera ateratzen, medikura laguntzen.... Hortxe nengoen, bete-betea.

Orain apaiz lanetan ari zara Usurbilen eta Aginagan. Noiz heldu zinen hona eta zer nolako herria topatu zenuen?

2001. urtean apaiztu nintzen.



“2001. urtean apaiztu nintzen. 20 urte egingo ditut irailean”.

IBON ALBERDI

“Erretereria-Oreretatik etorri nintzen hona. Hain herri baketsu eta isil bateko martxara ez nengoen ohituta”

20 urte egingo ditut irailean. Erretereria-Oreretatik etorri nintzen hona. Han hamar urte egin nituen. Bi apaizgai bezala eta beste zortzi urtez apaiz moduan, beste apaizlagun batekin batera. Oso ondo moldatzen gi-

nen Joxe Mari Muñoa eta biok. Gustura egin nuen bide hura. Joxe Mari jubilatuta zenean, erabaki nuen martxa egitea. Eta orduantxe eskaini zidaten Usurbila etortzea, 6.000 biztanleko herrixka batera. Ni hernaniorra naiz berez, Donostian egin nituen ikasketak eta Oreretan egon nintzen hainbat urtez. Oreretatik etorri nintzen hona. Hain herri baketsu eta isil bateko martxara ez nengoen ohituta, eta hasieran bertigo pixka bat eman zidan.

Apaiz-lanean ere aldaketa handiak izan ziren. Apaiz talde-lanera ohituta nengoen baina Usurbila etortzea proposatu zidatenean, lan-talde baten babesik gabe etorri behar izan nuen. Iritsi nintzenean Juan Aldasoro jubilatzeaz zen, Horazio Argarate Arrasatera eraman zuten eta Ramon Aranburuk ere martxa egin zuen.

Eta harrera ona egin al zitzazun?

Oso harrera ona egin zidaten.

“Osasun neurriak bermatu behar ziren”

NOAUA! Pandemian, ospakizun asko bertan behera utzi behar izan ziren. Eliztarrek nola hartu zituzten neurri hauek denak?

Ibon Alberdi: (Iazko) Martxoaren 12a zen. Gogoan dut, nire urtebetetze eguna zelako. Amarekin ari nintzen ospatzen. Ikusirik nola zetorren gauza, harritzen ninduen ordurako instituzionalki gure elizatik inork ezer esan ez izana. Juan Luis Muruarekin hitz

egin nuen telefonoz, eta esan nion: *hi, ezin diagu horrela jarraitu, erabaki bat hartu beharra zegoen. Hiletak zetozen eta kontuz ibili behar gaituk*. Horrelakoe-tan, familiari hitza eman eta gero ospakizuna bertan behera uzten baduzu, zaila da ulertzen. Kontuan izan une zailak direla pertsonentzat eta, gainera, aztoratzen baditugu, ba pentsa...

Gauzak garbi eduki eta erabakiak hartu behar dira. Juan Luis Muruarekin hitz egin nuen

eta biok erabaki genuen parroikia ixtea. Lasarte-Oria, Usurbil eta Aginagako elizen atarietan paper bana jarri genuen, *Parrokia itxita, abisu berrira arte*. Gipuzkoa mailan lehenengoak izan ginela uste dut. Parrokiako jendearekin ere hitz egin genuen, esan genien zein zen gure ikuspegia eta denak ados azaldu ziren.

Gauza garrantzitsuagoak badira eta fedea era askotan bizi daiteke. Eta horrelako egoera

batean, osasun neurriak bermatu behar dira. Horregatik erabaki genuen parrokiak ixtea.

Jendeari gardentasunez eta patsadaz hitz egiten zaionean, gauzak ondo azalduz eta ezer ezkutatu gabe, ondo hartzen ditu horrelako neurriak. Egia esan, ez dugu inongo arazorik izan alde horretatik. Alderantziz. Jendea laguntzeko prest azaldu zen. Gertu sentitu genituen eliztarrek.

“Heriotzaren unea ondo itxi behar da, dolua bizitzen hasteko”

NOAUA! Hileta elizkizunetan, jende kopurua asko mugatu zen. Iaz, Aste Santuaren atarian elkarriketa bat eskaini zenigun eta haxe adierazi zenuen: “oso gogorra da maite duzun pertsona ezin agurtzea nahi bezala”. Dolua kudeatzeko ez dira garai onenak izan, ezta?

Ibon Alberdi: Hori gogorra da, oso gogorra. Batez ere jendeak gorpua agurtu ezin izan duenean, edota bere hildakoa ikusi ez duenean. Nik heriotza gertutik bizi behar izan dudanean, garrantzia eman izan diot une bati: panteoia edo nitxoa ixten den uneari. Edo errausketan agurtzen duzunean, zerraldia ixten denean. *Klonk* unea deitzen diot nik. Eta une hori itxi egin behar da, ausentziaren dolua hasteko. Pandemia garaian, hori ez da gertatu askotan. Eta hori oso gogorra da.

Aurreko batean, Eusko Jaur-laritzak jarri duen doluaren



“Agur guztiak duintasun osoarekin egin genituen, eta jendeak asko eskertu zuen hori”.

IBON ALBERDI

“Nik garrantzia ematen diot panteoia edo nitxoa ixten den momentuari. ‘Klonk’ unea deitzen diot. Une hori itxi egin behar da, ausentziaren dolua hasteko. Pandemia garaian, hori ez zen gertatu askotan. Eta hori oso gogorra da”

telefonoaren arduradunetako batekin hitz egiteko aukera

izan nuen. Eta harek esaten zidan, jendea gonbidatzen zutela dolu hori ixtera. Guk aukera eduki dugu. Usurbil herri txikia da, eta hilerria eta tanatorioa handiak dira. Distantziak zaindu zitezkeen. Nahi izan duten guztiak agurra egin ahal izan dute. Gorpuarekin ez bazen, errautsekin agurra egin diegu. Eta jendeak asko eskertu du aukera hori. Heriotza itxi eta dolua bizitzen hasteko aukera ematen dizulako.

Gero bai, elizak irekitzen

hasi ginenean, guztiei deitu nien banan-bana eta aukera eman nien hileta egiteko. Eta uste dut denek edo gehienek baiezkoa eman zidatela. Beraz, gerora egin genituen hileta elizkizunak. Agur guztiak duintasun osoarekin egin genituen, eta hori ere jendeak asko eskertu zuen. Esan dudan moduan, heriotzaren une hori ondo itxi behar da dolua bizitzen hasteko. Ausentzia horren dolua hasteko.

Pandemiaren hasierako garaia izan zen bereziki gogorra, ezta?

Jendeak asko sufritu du. Pertsona ezberdinekin hitz egiteko aukera izan dut eta gaixotasuna ezin izan dute bizi. Gaixotasuna ere ausentzia moduan bizi izan dute eta hori oso gogorra da. Ezin senidea edo gertukoa besarkatu, ezin berarekin egon. Gerora gauzak aldatu ziren, baina hasiera hartan oso oso gogorra izan zen.

“Caritasek 40 familia atenditzen ditu hilero Usurbilen”

NOAUA! Pandemia hasi zenean, Andatzazpi Pastoral Bar-rutiak bere sare propioa eratu zuen adinekoak, gaixoak eta zailtasunetan zeuden herritarrek laguntzeko. Handik gutxira elkartasun sare bat osatu zen Usurbilen. Foru Aldundiak eta Eusko Jaur-laritzak ere antzeko ekimenak abiarazi zituzten. Pandemiak gauza onik ekarri badu hori izan da, ezta? Elkartasun keinu asko egon dira denbora honetan.

Ibon Alberdi: Goiz batean entzun nuen irratan nola sortzen ari ziren sare horiek eta ideia ederra iruditu zitzaidan. Jende askok ezingo du atera, ezin erosketak egin...

Parrokiko taldekoekin hitz egin nuen eta aukera zegoenez, sare hori sortu genuen. Baina ez genuen konpetentzia moduan eratu. Une horretan Usurbilen ez zegoelako horrelako sarrerik antolatuta oraindik. Usurbilgo Udala, Eusko Jaur-laritzak eta Foru Aldundia ez ziren horretan hasi eta horregatik abiatu genuen gurea. Hortik pixka batera, Udalak jarri zuen elkartasun sare bat martxan eta une horretan gurea desegin genuen eta udaleko sare horretara batu ginen. Nik neronek Usurbilgoan eman nuen izena eta baita Foru Aldundikoan ere.

Lan horretan baduzue esperientzia. Caritasen bitartez

hainbat familia laguntzen dituzue. Pandemiarekin egoera okertu egin al da?

Usurbilen ere errealitatea aldatu egin da. Usurbilgo parrokiako Caritasek 40 bat familia atenditzen ditu hilero. Janariarekin edota laguntza ekonomikoaren bitartez. Era askotara. Usurbilgo Caritasek urtero 35.000 euro jartzen ditu mahai gainean, laguntza horiek bideratzeko.

Baina garrantzitsuenak ez da diruarena. Gabeziak ikusten baldin baditugu, gizarte instituzioei esan behar diegu “aizue, gabezia hau dago eta atenditu beharra dago”. Pandemia leher-tu zenean, elikadura bankua itxi egin zuten. Jende hori zerbitzurik gabe geratu zen. Zer

egin dezakegu? Dirulaguntza lerro berri bat zabaldu behar-ko dugu? Udalak aurrera egin zuen eta Usurbilgo familia horien elikadura bermatu zuen. Paperak bete, udaletxean aurkeztu, ze familiak ziren zehaztu... Hori dena guk egin genuen. Elkarlan polit bat egon zen Udalarekin. Gabezia hori ikusi zuen eta behar hori asumitu zuen. Denboraldi batean hala egin zen eta gero elikadura bankura bueltatu ginen berriro.

Gure proiektua ez da gabezia horiek guk asumitzea betirako, baizik eta gizarte-ari jakinaraztea, “begira, gabezia hau dago eta ea nola erantzuten diogun”.

“Parrokiak ondare bat du eta ondareak gizartearen ongintzarako izan behar duela uste dut”

NOAUA! Kale gorrian zeuden zortzi gazte, Usurbilgo parrokiak utzitako bi etxebizitzetan bizi dira orain. Gazte horietako bi elkarrizketatu genituen duela lau hilabete. Oso eskertuak zeuden parrokiarekin.

Ibon Alberdi: Parrokiak ondare bat du. Eta uste dut ondareak gizartearen ongintzarako izan behar duela. Egia da mantendu behar direla, baina oreka bat egon daiteke. Ondare horiek inbertsio potente bat behar zuten eta parrokia arduradunekin hitz egin eta gero, adostu genuen egokitzapenak egin behar zirela. Egin beharreko inbertsioa egin eta gero, ze irtenbide emango diogu ondare honi? Merkatu libre-ara aterako gara edo parrokia bezala beste zerbaitek pentsatu beharko genuke? Parrokiako arduradunok erabaki genuen etxebizitza hauek bideratu behar genituela gizarteko alderdi zail batera. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta batekin zein besteekin hizketan, proiektu hau suertatu zen. Eusko Jaur-laritzak egitasmo hau abiarazi zuela, Zabalduz kooperatibak kudeatzen duena. Azken hauekin harremanetan jarri ginen eta oso interesgarria iruditu zitzaizkion gure proposamena.



“Usurbilen bizi diren gazte migratzaileek zortea izan dute. Hiru urtez ezingo dute lanik egin baina ikasten ari dira”. Elkarrizketa hau gure web orrialdean duzu ikusgai, noaua.eus/bereziak/kafe-garaia helbidean.

IBON ALBERDI

“Politikari batzuk eta pertsona batzuk entzuten ditudanean, ‘gazte hauek laguntzetatik bizitzera datoz’. Erre egiten naiz. Jende horrek ba al daki kanpotik datorren pertsona batek hiru urtez egon behar duela erroladatuta, lanean hasi ahal izateko?”

Elkarlanean hasi ginen eta oso pozik gaude orain.

Migratzaile gazte hauek aterpe bat dute orain Usurbilen. Gustura bizi al dira hemen?

Gazteak dira eta, jainkoari eskerrak, gazte guztien ezau-garriak dauzkate. Denak pertsonak gara, denak, eta beraiek gazteak dira. Eta gazte bezala, aurrera atera behar dute. Eta nahi dute aurrera atera. Baina zailtasunak aurkitzen dituzte.

Egunkarietan-eta politikari batzuk eta pertsona batzuk entzuten ditudanean, “hauek laguntzetatik bizitzera datoz”, erre egiten naiz. Ezin dut jasan. Jende horrek ba al daki kanpo-

tik datorren pertsona batek hiru urte bete behar dituela erroladatuta, lanean hasi ahal izateko?

Lehen hiru urte horietan ezin dituzte kontratatu.

Hiru urte! Hasteko, errola ez dizute nahi duzun moduan ematen. Eta hiru urte horietan pertsona horrek ezin du lanik egin. Nondik bizi da? Guk ba al dugu dirurik aurreztuta hiru urtez zerura begira egoteko? (...). Usurbilen bizi diren gazte hauek zortea izan dute. Hiru urtez ezingo dute lanik egin baina ikasten ari dira. Ondo.

“Ziortza gazte elkartea bizirik dago eta indartsu”

NOAUA! Gazteak epaitzeko joera dugu. Ez direla inplikatzeko, bere gauzetan bizi direla, pantailari pegatuta... Ziortza aisialdi taldean esate baterako, jende gaztea aritu ohi da begirale lanetan. Oraindik ere hala al da?

Ibon Alberdi: Ziortza gazte elkartea bizirik dago eta indartsu. Orain kanpaldia has-tera goaz. Kanpaldiaren muntaia lanetan adibidez, 50 bat

pertsona elkartzeko dira. Guraso, laguntzaile, gazte... 50 pertsona. Erraz esaten da. Hemendik Errioxaraino bi ordu eta pikoko bidea, lan egin, eta batzuk bertan lotan geldituko dira biharamunean lanean jarraitzeko.

Urtean zehar, begiraleak 30 bat izango dira. Eta 80 bat gazte elkartzeko dira bertan. Gune bat eskura edukitzeko, gazteekin hitz egiteko... Uste dut gune horiek beharrezkoak

direla.

Gazteak epaitzeko joera dugu-lar? Bai, baina ni ere gazte izan naiz eta 47 urte ditut orain. Ez dakit urrun dagoen edo ez, baina gogoan dut garai hura. Eta uste dut gure buruarekiko garbi jokatu beharko genukeela. Guk ere gure aukerak izan ditugu, edo santuak izan al gara? Edo apaiz izan al naiz nire bizitza osoan? Ez. Nireak egin ditut eta egin behar nituen.



“Ziortzaren kanpaldiaren muntaia lanetan 50 bat pertsona elkartzeko dira. 50 pertsona. Erraz esaten da”.

Festak, oporrak eta kanpaldiak mintzagai

Duela 25 urte ere, Santixabelak pasatuta zeuden jada, eta oraindik ere ohitura den bezala, hainbat gaztetxo Peñaloscontosen ziren. Halaxe kontatu zuten portadan bertan, 1996ko uztailaren 19an plazaraturiko NOAUA!n.

Erabat partehartzailea zen garai hartako NOAUA! eta asko oporretan bazeuden ere, tartea hartzen zuten herritarrekin zer edo zer partekatze. Joxe Mari Izeta hezitzaileak oporrei buruzko hausnarketa proposatu zuen zutabegile nagusi gisa; “txori bakoitzak bere hegaldia” zioen barne-bakarrizketa hartan. Garaiko egoerarekin haserre zegoen herritar batek ere, abagunea baliatu zuen Santixabeletako programan

meza nagusiari burla egin ziotela esanez. Programan bertan “siestatxo tokatzen da, eta berriaz ere siesta” aipamen publikoak egin zituzten urte hartan meza nagusiaren deialdiaren baitan.

Tradizioak, gaurko antzekoak

Ondorengo orrialdeetan iristear ziren Santioei eta Sanestebanei buruzkoak izan ziren urte hartan. Bi auzoetako programak eta bakoitzari buruzko kronika bana. Pentsa liteke jaietako programak 25 urtetan asko aldatuko zirela, baina aurtengo programa izan zitezkeen bi programa prestatu zituzten Zubietan eta Sanestebanen: zikiro jana, bertsolariak, herri kirolak, festen amaierako traka, Laiotz taldearekin erromeria... tradizioek bizirik diraite orain-

dik ere.

Felix Mendizabal kirolaria gogoan

Izerdi patsetan atalean, Felix Mendizabal Mendiburu herritarra izan zuten gogoan urte hartan. Olinpiar Jokoak ospatzekoak zirela eta, usurbildar korrikalaria gogoratu nahi izan zuten; askoren ustez “sprinter” ezinhobea. Amberesen eta Parisen izan zen 1920 eta 1924ko Olinpiar Jokoetan partehartzen, eta dominak ere eskuratu zituen. Xabier Carbayeda ere gogoan izan zuten, 1988ko Seuleko Jokoetan erlojupekoan txirrindulari aritu zena. 14. postua erdietsi zuten Carbayedak eta bere taldeak.

Porrusalda atalean, uztaila hartako gertaera garrantzitsuenak bildu zituzten: Atzegiko



1996ko uztailaren 19an plazaratu zen NOAUA!ren bigarren zenbakia.

Kirol Elkarteko usurbildar igerilarien partehartzea, kioskoan lapurreta, Olarrondoko apar-kalekuaren berrikuntza lanen amaiera, Usurbil FTren emakumezko taldea sortzeko deialdia eta presoan eskubideen aldeko manifestazioa.

Duela 25 urte

NOAUA! 2. zenbakia 1996ko uztailaren 19an

“Ingelesak askoz ere hotzagoak dira”

NOAUAren bigarren zenbakian, Freddy Gridley ingelesari elkarriketa egin zioten “Berriketan” atalean. Ale hari omenaldia egin nahi dio egungo NOAUA!k. Horra hor elkarriketa hura hitzez hitz:

NOAUA! Nolatan etorri zinen Usurbila?

Freddy Gridley: Gerra garaian frantses ofizial bat ezagutu nuen, eta gerra bukatzean bisitatuko nuela hitz eman nion. Horrela, Frantziako Poitiers herrira iritsi nintzen semearekin 1954an.

Eta Frantziatik gure herrira?

Ondoren, beherantz jarraitu genuen. Lasartera iritsitakoan, lo egiteko kanping batez galdetu genuen, eta Zubietara bidali gintuzten. Hantxe egon ginen plazako

zuhaitzetan kanpin-denda muntaturik bi astetan.

Eta gustatu egin zitzaizun...

Bai, harrezkero urtero etorri izan naiz.

Nola egin zenuen bidaia?

Motoz iritsi ginen honaino.

Zer gustatu zitzaizun gehien hemengo gauzetatik?

Jendea. Benetan harrituta gelditu nintzen hemengo jendearen harrerarekin.

Zerk bultzatzen zaitu berriro Londonera joatera?

Nire etxeak. Museo antzekoa da: antzinako tresna, pieza, koadroz... beteta daukat. Eta hura guztia ezin dut ekarri hona.

Zer duzu nahiago, hanburgesa ala babarrun platerkada bat?

Ez, ez, hanburgesarik ez, mesedez. Londonen nagoenean ere, ez dut inoiz hanburgesarik jaten.

Zer jaten duzu, orduan?

Ni neroni joaten naiz merkatura jaki freskoak erostera. Sukaldari iaioa naiz. Hemen-dik joaten den jendea ere harrituta geratzen da.

Zein musika mota gustatzen zaizu?


Trikitixa, Ganbara taldea, rock and rolla... Eta eskusoinua ere asko gustatzen zait.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Oso osorik ingelesa. Eta gero, euskara, gaztelera, alemaniera eta frantsesa pixka bat.

Bidaiatzeko zein garraio mota duzu gogokoena?

Motorra, dudarik gabe. Baina



2. zenbakiko elkarriketaren protagonista Freddy Gridley izan zen.

orain semeak motoan ibiltzeko zaharregia naizela dio, eta ez dit uzten.

Umorea, ingelesa ala euskalduna?

Euskalduna. Ingelesak askoz ere hotzagoak dira, eta bakoitza bere munduan bizi da. Ez dago hemen bezalako harremanik jendearen artean.

Ekiola kooperatibaren aurkezpena Beterri-Buruntzan

2030. urtean, kontsumitzen den energiaren %32ak jatorri berriztagarria izan beharko du. Helburu hau Europar Batasunak ezarria du. Nola? Autokontsumoa eta komunitate energetikoak sustatuz. Testuinguru horretan sortu da Ekiola, energia sustatzeko sozietatea.

Ekiola bira moduko bat egingen ari da EAEko udalerrietan eta eskualdeetan barrena. Aurreko astean, Buruntzaldeko udal ordezkariekin batu ziren Andoainen. Tartean zen Agurtzane Solaberrieta Mesa, Usurbilgo alkatea.



Ekiola kooperatibako ordezkariak Buruntzaldeko udal ordezkariekin batu ziren aurreko astean, Andoainen.

Tokiko erakundeek inplikazioa

Energia-komunitateak sortzeko Ekiolaren bidez, izaera kooperatiboa duten energia-komunitateak sortu nahi dira. Proiektu honen bidez, kooperatibistak sortzen duten energiaren jabe izango dira; “herritarrek beren energia sortu, sustatu eta kontsumituko dute”. Ekiolako kudeatzaileek aditzera eman dutenez, “hau posible izango da Energiaren Euskal Erakundearen eta Mondragon Kor-

EKIOLA

Kooperatibistak sortzen duten energiaren jabe izango dira; “herritarrek beren energia sortu, sustatu eta kontsumituko dute”

porazioaren barneko Krea Ingeniaritza sustatzailearen lankidetzari esker, bai eta tokiko erakundeei esker ere”.

Instalazioak, herritarrenak

Beterri-Buruntzan eredu hau aplikatu ahal izango da, eta energia-azpiegiturak sortzea ahalbidetuko du (1MW eta 5MW arteko potentzia duten eguzki-parkeak), hurbileko energia sortuko dutenak (0 kilometrokoak). “Azken helburua litzateke kooperatibako kide diren pertsonen edo familiek instalazio fotovoltaikoei lotutako ekonomiaz baliatzea, instalazio horiek herritarrenak izatea, eta horietan kontsumo

elektriko osoaren baliokidea den energia-bolumena sortzea”, Ekiolatik jakinarazi dutenenez.

Kontsumitzaileek kooperatibaren jabetzaren zati bat eskuratu beharko dute, “etxebizitzaren energia-kontsumoaren pareko kostuarekin”, Hodei Arzak Krea enpresako ingeniari taldeko kideak aditzera eman zuenez. Orain, Buruntzaldeko udalerrri bakoitzak bere errealtatera egokitze eskura dituen aukerak aztertu beharko ditu.

Kiroldegian eta Sutegin zenbait berrikuntza bideratuko ditu Udalak

Uda obren garaia izan ohi da. Aurtengoan ere bai; bi udal instalakuntza berritzeko baliatuko du Usurbilgo Udalak; Oiardo Kiroldegia eta Sutegi kultur etxea.

Sutegiri dagokionez, bi lan bideratuko dituela iragarri du Udalak ohar bidez. “Batetik, fatxada egokitu da, eraikinari izaera propioa ematen dion alabastroa ez baita efizientea energetikoki. Bestetik, zerbitzua hobetu eta ikasteko espazio egokiagoa izan dadin, bi solairuen arteko hutsunea

ixtikoa da: espazioa irabazi, eta isiltasun gehiago egongo da. Horrez gain, taldeak biltzeko gune bat egingo dute goiko solairuan, eta espazio hori bereizteko erabiliko dute fatxadako alabastroa, materialari balioa emateko. Proiektua 89.300 euroan atera dute esleipenera, eta uztailaren 30era bitartean izango dute interesdunek proposamenak aurkezteko epea”.

Harmaila zaharra kenduta

Oiardo Kiroldegian aldiz, harmailak berritzeko bidean dira.

“Orain arte egon direnak kiroldegia egin zen garaioak ziren. 2020ko udal-aurrekontuetan 90.000 euroko partida bat gorde zen horretarako, baina Covid-19-a tarteko, bertan behera utzi zen, diru hori osasun krisiari eta horren ondorioei aurre egiteko erabiltzea lehenetsita. Harmaila zaharra kendu dute dagoeneko, eta konponketa txiki batzuk egiteko aprobetxatu dute, berria jarri bitartean. Harmaila berriaren proiektuak aurrekontu txikiagoa du, 72.600 eurokoa, harmaila zaharra

kentzeko lana brigadak egin baitu. Jasotako eskaintzak baloratu eta lanak esleitzea izango da hurrengo pausoa”.

Udazkenari begira bestalde, “obra gehiago egitea aurreikusten da kiroldegian. Zehazki, sauna berria jarriko dute, zaharra kendu eta lekuz aldatuta. Ikasturte berriarekin, bilera bat egin asmo dute erabiltzaileekin, funtzionamenduaz hitz egiteko. Hori aldatzean, dantza taldearentzako lokal berria egokituko du brigadak kiroldegian”.

Ekhi Camino: “Irakasleek ikasturte osoko lanarengatik txalotu naute”

Ekhi Camino usurbildarrrak lortu du aurtengo selektibitateko notarik altuena. Gipuzkoako onena ez ezik, EAEko onena izatea ere lortu du ia 14 puntu lortuta. Nota horrek aukera emango dio ilusioz egin nahi dituen matematika ikasketak egiteko. Horra NOAUA!ri kontatu diona.

NOAUA! Selektibitatean 9,93 atera duzu hamarretik, baina nota 14tik izan ohi da.

Ekhi Camino: Ponderazioen arabera izaten da, matematikan 13,882. Irakasgaika kalkulua eginez gero, denetan hamar atera dut hiru irakasgaitan izan ezik: matematikan 9,9; historian 9,75, eta fisikan 9,3. Azken horretan izan nituen akatsik handienak. Hizkuntza guztietan atera dut hamar, eta gutxienetakoa matematiketan, nahiz eta gero ikasketa horiek egin nahi ditudan. Bizitzaren ironiak.

Selektibitateaz ari gara, baina ikasturtean ateratako notek pisu handia dute azken nota horretan.

Ikasturteko lan horren guztiaren emaitza da nagusiki, eta gainera, selektibitatea prestatzeko ikasturtean zehar egin ditugun azterketa askok formatu bera zuten, gaztelerako azterketek, esaterako. Matematikako azterketak zailagoak ziren, bai-



“Hizkuntza guztietan atera dut hamar, eta gutxienetakoa matematiketan, nahiz eta gero ikasketa horiek egin nahi ditudan. Bizitzaren ironiak”, azaldu digu Ekhi Caminok. EAEEn, selektibitateko notarik altuena atera du.

EKHI CAMINO

“Nota onak atera ditut beti, baina azken ikasturte honetan are eta nota hobeak atera ditut”

na horrek gehiago laguntzen du gerora, selektibitatea askoz errazago egiten baita. Selektibitatean faktore asko hartu be-

har dira kontuan, urduritasuna esaterako.

Beraz, ikasturtean zehar ere ikaslerik onena edo onenetarikoa izan zara, ezta?

Ni beti izan naiz nota onak ateratzen dituzten horietakoa, baina azken ikasturte honetan are eta nota hobeak atera ditut. Normalean, bederatziak eta hamarrek ateratzen dituen horietakoa izan naiz, eta hortik

abiatuta urtero hobetuz joan naiz gaurdaino.

Zer esan dizute ingurukoek EAEko selektibitateko notarik onena atera duzula jakitean?

Gauza asko esan dizkidate, denak onak, jakina. Irakasleek ikasturte osoko lana txalotu dute, eta ingurukoek ere lan hori aitortu didate. Hori azkenean pozgarria da edonorentzat.

“DBH2ra arte Udarregi ikastolan aritu nintzen”

NOAUA! Batxilergoa Antigua-Luberri ikastetxean egin zenuen, baina ordura arte Udarregi Ikastolan ibili zinen, ezta?

Ekhi Camino: DBH2ra arte Udarregi Ikastolan aritu nintzen, eta gero Luberrira joa-

tea erabaki nuen. Hasieran, DBH3n Luberrira joatea zen nire asmoa, horrela batxilerrera bertan plaza bat izango nuela ziurtzat jo zitekeen, bestela agian kanpoan gera nintekeen. Gainera, ikastetxeko erritmo eta estilora lehenago

ohituko nintzela iruditzen zitzaidan.

Udarregiko lagun batek esan zidan DBH2n Luberrira zihoala, eta gure gurasoek horri buruz hitz egin zuten, eta aukera hori proposatu zidan amak. Lagun gehiegi ere ez

nituen, eta zentzu horretan, ez zidan pena handirik eman joateak, jakinda umetako laguna ere nirekin batera joango zela. Ekhi proiektuari buruz ere asko hitz egin da, baina ni ez nintzen horregatik joan.

“Jakín nuenean, oihuka hasi nintzen, sinetsi ezinik”

NOAUA! Nota onena zurea zela jakín zenuenean nola erreakzionatu zenuen?

Ekhi Camino: Egun horretan, beti bezala goizean esnatu eta nire gauzak egiten jarri nintzen. Dutxa bat hartzera joan nintzen, eta ateratzean dei galdu bat neukala ikusi nuen. Atzera deitu nien zer behar zuten jakiteko, eta orduan jakinarazi zidaten Gipuzkoako notarik onena izateaz gain, EAEko notarik onena ere nik atera nuela. Sinetsi ezinik oihuka hasi nintzen komunean, eta ama korrika etorri zen ea zer gertatzen zen jakín nahian.



“DBHn jabetu nintzen matematiketakako erraztasun handia neukala”.

Orain matematika ikasketak egin nahi dituzu.

LH3tik nabaritzen nuen matematikak asko gustatzen zitzaizkidala. LHn ondo ikusten nuen neure burua, eta DBHn jabetu nintzen matematiketakako erraztasun handia neukala, eta gainera, gustatzen zitzaizkidan. DBH 4. mailan eduki nituen beste ideia batzuk ere, fisika adibidez. Aurten, fisika mekanikotik harago aztertu dugu ikasgelan,

EKHI CAMINO

“LH3 mailatik nabaria zen matematikak asko gustatzen zitzaizkidala”

baina matematikak deigarriago zaizkit. Matematika ikasketen lehengo mailan fisika orokorra ere ematen da, beraz, aukera izango dut gehien gustatzen zaidana ikusteko.

Aurten, beraz, matematika eta fisikarekin gogor aritu zara lanean.

Ez pentsa, matematika landu dut, baina betiko moduan. Azkeneko hilabetean euskara eta hizkuntzekin aritu naiz orokorrean, idazlanak egiten eta abar. Azterketetan beti 5 puntutik 4,2 edo 4,4 inguruan ibili nintzen ikasturtean zehar, eta ondo egin nahi nuen.

Hamar atera nuen azkenean. Gaztelerarekin ere berdín, puntuak galtzea oso erraza da, eta beraz, horrekin ere aritu naiz.

Historia da beste ikasgai zailetako bat, datak eta ikasten ondo moldatzen naiz, eta gustatzen zait, baina den-dena ikasita ere segituan ahazten zaizkit. Kasu askotan ahaztu egiten zaizkit kontzeptu asko.

“Estatistika eta datuen analisia ditut gustuko”

NOAUA! Matematika ikasketak egin ondoren, zer lanbidetan irudikatzen duzu zeure burua?

Ekhi Camino: Matematika ikasketen inguruko aukerak begiratzen hasi nintzen, estatistikaren arloan zentratzea pentsatu nuen hasieran, Madrilgo Unibertsitatean egin daitezke ikasketa horiek. Arrazoi askorengatik baztertu genuen ideia hori. Lehenik eta behin notarengatik, nahiz eta orain ikusi dugun ez dela arazo. Gainera, Madrilen pisua ordaindu beharko genuke, eta hori diru asko da. Eta azkenik, plaza gutxi daude. Azkenean, erabaki nuen Bilbon mate-

matika egitea lehen urtean, eta zerbait konkretuagoa gustatzen bazait aurrerago egingo dut beste zerbait. Baina oraingoz, nik uste estatistika eta datuen analisia dudala gustokoen. Azken urteetan enpresetan asko eskatzen ari dira ikasketa alor hori egin duten profesionalak. Horren ondorioz, matematikan pila bat igo da ikasketa horietan sartzeko nota. Orokorrean beti izaten dute notek goranzko joera, baina duela hiru urte hamar eta zerbaitekoa zen, eta orain, 12,5 edo 12,6koa izan daiteke. Bi puntu oso igo da nota oso urte gutxian. Matematika ikasten duten ikasleen %90ak ikas-

ketak bukatu eta lehenengo urtean lortzen du lana. Langabezia gutxi dago arlo horretan, eta hori jendearentzat erakargarria da. Master bat ere egin beharko da, egungo egoera ikusita, baina egingo dut hori ere.

Masterra egin dezakezu estatistikari buruz, horretara bideratu nahi baduzu zeure burua.

Bai, hori ere pentsatu dut. Lanean ere gogor arituko naizela badakit, eta nota onak lortuta enpresek nigan interesa izango dutela uste dut.

Argi daukazu, beraz, matematikaren alorrean lan egingo

duzula.

Helduago naizenean, behin lanpostu on bat daukadanean, gustatuko litzaidake filologia hispanikoa edo artearen historia ere ikastea. Orain ez daukat denbora asko horrelako gauzak begiratzeko, baina jendea ikusten dut hobby askorekin eta nik ere nahi dut zerbait egin plazeragatik baino ez bada ere. Irakasleak batxilergoan nahiko zorrotzak dira, eta gaztelerakoak are eta gehiago. Orduan, nik uste jende asko beldurtzen dutela, eta horregatik jende gutxi animatzen dela filologia hispanikoa ikastera.

Desafio ikusgarria Dema plazan



Erakustaldi ikusgarria eskaini zuten larunbateko giza proban parte hartu zuten usurbildarrek. Aimar Zuloaga, Iurgi

Mendiluze eta Imanol Zaldúa hirukoteak Joseba Santxezen laguntza izan zuen. Gabi Sarasola, Berdaitz Larrarte eta Aitor



Alkorta hirukoteak, aldiz, Txomin Alkortarena. Tira behar zutena, 1.800 kiloko Ur Epel harria. Aimar Zuloaga, Iurgi

Mendiluze eta Imanol Zaldúa gailendu ziren, 20 minututan plaza bat, zortzi zinta eta 1,68 metro osatu eta gero.



Herri Kirolen Eguna aizkolariek eta harrijasotzaileek borobildu zuten. Aizkoran, bi anai usurbildar; Jon eta Haritz Esnal. Harria jasotzen, Ostolaza harri eskolako bi kide; Udane Ostolaza eta Gorka Etxeberria. Bikoteka lehiatu ziren, Haritz eta Gorka batetik, Udane eta Jon bestetik. Azken hauek nagusitu ziren.



Viafararen debuta

Ostiralean heldu zioten berriz ere Kultur Birari. Ugaitz Agirre taularatu zen lehendabizi, uste baino bi ordu beranduago Aginagako Eliza Zaharraren atarian.

20:00etan hastekoa zen ikuskizuna hamarretan hasi zen. “Non dago Amaia?” ordubete

inguruko lana eskaini zuen Ugaitz Agirrek, bertaratutako dozenaka lagunuen aurrean. Ondoren, Viafara musika taldea igo zen oholtzara kontzertu bikain bat eskaintzeko. Duela bi urte sortutako taldea da Viafara, eta sortzen ari diren lanak erakutsi zituzten Aginagan.



Viafara musika taldea Aginagako Eliza Zaharraren kanpoaldean aritu zen.

Andoni Egaña, “Neretik”

Andoni Egaña bertsolariak “Neretik” emanaldia eskaini zuen igande arratsaldean Santuenean, Kultur Biraren baitan. Bere bizitzari oso loturiko egiazko gaiak jorratu zituen Andoni Egañak bertso-sorta batean.

Aspalditik zuen kezka ba-

metik sortu zuen ikuskizuna: bertso-paper ugari eta onak egiten direla, baina ez direla sozializatzen. Horregatik erabaki zuen bere sorta sortu eta emanaldiak egitea, Jon Ostolaza trikitilariarekin batera. Emanaldira herritar eta auzotar ugari hurbildu ziren, eta giro ederra sortu zen.



Bertso-paperak abestu zituen Santuenean, Jon Ostolaza trikitilariarekin batera.

Zubietarrak, Gipuzkoako erreboteko txapeldunak

Gipuzkoako errebote txapelketako finala aurreko igandean jokatu zen Villabonan. Zubietarrak 13-7 nagusitu ziren norgehiagokan. Villabonako Behar Zana taldekoak izan ziren aurkariak.

Zubietarrak nagusi beste behin errebotean. Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten igande goizean, Villabonan jokaturiko finalean. Etxekoak izan zituzten aurrez aurre, Villabonako Behar Zanako kideak. 13-7 irabazi zieten zubietarrek. Txapelketa hau iazko etenaldiaren ostean itzuli da.

Formatu laburragoa

Covid-19agatik “iaz ez zen txapelketa antolatzerik izan”, Gipuzkoako Pilota Federazioak gogorarazi duenez. Aurten ordea, egokitzenekin ospatu ahal izan da. “Formatu laburrean bada ere, hainbat norgehiagokaz gozatzeko parada izan da”.

Final honetarako hautagaiak, uztailako lehen asteburuan Zu-



Iazko etena eta gero, berriz jokatu da Gipuzkoako errebote txapelketa.

AURKARIEN ETXEAN

Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten igande goizean, Villabonan jokaturiko finalean. Etxekoak izan zituzten aurrez aurre, Villabonako Behar Zanako kideak. 13-7 irabazi zuten zubietarrek

bietan jokaturiko neurketa berrezitik atera ziren. Hilaren 3an

errebote plazan hain zuzen, txapelketa honetan parte hartu duten hiru taldeak lehiatu ziren elkarren artean; Zubietarra, Villabonako Behar Zana eta Oiartzungo Txost.

Edizio berezi eta egokitu honetan, zubietarrak sailkatu dira final nagusira, baina oraingoan Txost taldekoak ez, aurreko bi edizioetan gertatu den moduan. Zubietarren eta Behar Zanaren artekoa izan da azken partida.

“Gure seme alaben alde?”, txertoen inguruko hitzaldia frontoian

Bizitza izeneko elkar-teak txertoen inguruko hitzaldi bat antolatu du. Uztailaren 20an asteartea, arratsaldeko 19:30ean Usurbilgo frontoian. Txusa Balbas eta Iñigo Altuna medikuek hartuko dute parte.

Hitzaldi hau “Bizitza, osasunaren eta askatasunaren alde” izeneko elkarteak antolatu du. Euren web orrialdean irakurri dugunez, Covid-19aren kontrako txertoen eraginkortasuna zalantzan jartzen dute.



Argazkian, Txusa Balbas medikua. Uztailaren 20ko hitzaldian hartuko du parte, Iñigo Altuna medikuarekin batera. 19:30ean, Usurbilgo frontoian.

Larunbatean bi film eskainiko dituzte Santuenean

Film proiektzioen arratsalde eta gaua antolatu du Santuenea elkarteak larunbaterako, uztailaren 17rako. Afalaurretik bereziki etxeko txikienei zuzenduriko “Bihurri: Jauretxetik kale gorriara” ikus-entzunezkoa; iluntzean, “Figuras ocultas”. Bi filmak aire libreko espazioan eskainiko dira, eskubaloizelaian. Euria egingo balu, Santueneko frontoian.

Uztailak 17, larunbata

■ 19:00 Film proiektzioa: “Bihurri: Jauretxetik kale gorriara”.

Sinopsia: “Bere jabea hil eta gero, hiri handiko kaleetan abandonatuta eta bakarrik aurkituko da Bihurri txakurra. Zoe neskato gazteak bere etxera eramaten duen arte”.

■ 21:15 Film proiektzioa: “Figuras ocultas”.

Sinopsia: “60ko hamarkadan (espazioa dominatzeko lasterketa-betean, eta AEBko beltzen eskubide zibilen borroka puri-purian zela) NASAn aritu ziren hiru emakumezko zientzialariren bizitza kontatzen du filmak. Hirurak ala hirurak John Glenn astronauta orbitartzeko proiektuan jardun ziren”.

Hizkuntza: gaztelania.

Izen ematea:

Doan uztailaren 15a baino lehen, usurbilkultura.eus plataforman.

Edukiera: 43 lagun.

Antolatzailea: Santuenea Elkarte.



Larunbatean “Bihurri: Jauretxetik kale gorriara” filma eskainiko dute Santuenean.

Autobus zerbitzuetan eman diren aldaketek erabiltzaileen haserrea eragin dute

Aspalditik dator kontua baina egun hauetan lehertu da. Uztailaren 1etik indarrean dira lizitazio berriak eta kaltetuenak Usurbil eta Donostiako Ospitaleak lotzen dituen autobuseko bidaia-riak dira.

Udalak aditzera eman duenez, azken egun hauetan kexu ugari entzun behar izan dituzte, “uztailaren 1az geroztik martxan dagoen Buruntzaldeko autobusen lizitazio berriak eragindako aldaketak tarteko. Batik bat, Usurbil Donostiako Ospitaleekin lotzen zuen zuzeneko zerbitzuarengatik”.

Ostegun honetan, bilera Sutegin

Gaiaz hitz egiteko bilera irekia deitu du Udalak: ostegun honetan 19:00etan Sutegin.

Usurbilek bi linea zituen Buruntzaldearekin lotuta: Hernanira bat, Donostiako Ospitaleetara bestea. Usurbil ospitaleekin zuzenean lotzen zuen zerbitzua da, hain zuzen, kendu dutena (Lasarte-Oriara joan behar dute orain lehen-



Kaltetuenak Donostiako ospitaleetara joaten diren bidaia-riak dira. Kexuen aurrean, bilera irekia deitu dute ostegun honetarako. 19:00etan Sutegin.

ERAGOZPENAK GARRAIOAN

Usurbil ospitaleekin zuzenean lotzen zuen zerbitzua da kendu dutena. Usurbildarrek Lasarte-Oriara joan behar dute orain, han ospitalera doan beste autobus bat hartzeko

bizi, han ospitalera doan beste autobus bat hartzeko).

Aspalditik datorren kontua orain gauzatu da

Lizitazioa martxan orain jarri badute ere, duela zenbait urte abiatu zen prozesua, eta orduan ere kexu ugari izan ziren. Eskualdeko beste herri batzuetan gertatu bezala, “Usurbilen ere Udalak eta 2.000 herritarrek alegazioak jarri zizkieten prozesuari, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zituen kon-tuan hartu”, diote udal iturriek.



Drainatze lanak Agerialdeko frontoian

Ezker paretak dituen hezeta-sun arazoak konpontzeko lanak hasi ditu Usurbilgo Udalak. “Lau astetan bukatuta izango dira lanak”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

Frontoi hori estaltzeko lanak abiatuak ditu Udarregi ikastolak, eta horrekin batera egingo ditu Udalak drainatze lanak ere. “Sasoi Eraikuntzak SL enpresari esleitu zaizkio lanak, 48.363,28 euroan. Ostegunean hasiko dira makinak sartzen, eta lanak lau astetan bukatzea aurreikusi dute”, dio Udalak.

Bi fasetan egingo da

Drainatze lanei dagokionez, bi fasetan egingo dituzte. Lur eremu horretako euri urak jasotzeko drainatze hodi bat jarriko dute lehenbizi, eta, ondoren, ezker pareta guztia saneatuko dute.

Abiatu da Laboaren Uztaila

Hitzak, irudia eta musika tartekatu zituen Olorren emanaldiak abiarazi zuen Laboaren Uztaila iragan astean.

Uztailak 15, osteguna

■ 22:00 Ibon Rg eta Enrike Hurtado Mikel Laboa plazan.

■ Zehaztasunak: “IbonRG (Sestao, 1978) eta Enrike Hurtado (Sodupe, 1973). IbonRG hainbat proiektutan aritutako musikaria da. Bakarkako ibilbidean ahotsa du tresna nagusi, batzuetan a capella, bestetan pianoak lagunduta. Enrike Hurtadoren musika



Olorren kontzertuarekin abiatu zen aurtengo zikloa.

ibilbidea aldiz, software garapenari lotuta dago.

■ Izen ematea: uztailaren 13ra arte doan, usurbilkultu-

ra.eus atarian.

Uztailak 22, osteguna

■ 22:00 Aire Ahizpak Mikel

Laboa plazan.

■ Izen ematea: uztailaren 20ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.

Uztailak 29, osteguna

■ 22:00 Garazi Navas Mikel Laboa plazan.

■ Izen ematea: uztailaren 27ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.

Oharra:

■ Giro euritsua bada, kontzertuak Sutegin izango dira.

■ Edukiera: 78 lagun.

■ Antolatzailea: Laboaren Uzta.

'Mikra' ikuskizuna, ostiral arratsaldean Zubietako errebote plazan

Ostiralerako proposame-na luzatu dute Zubietako errebote plazan. Mikra zirku garaikidearen erakustaldia eskainiko dute akrobazietan zoildutako bi profesionalek 19:00etatik aurrera. 40 bat minutu iraungo dituen lanean, binakako akrobazia lurrean eta trapezioan, oihalak, antzerkia eta dantza uztartuko dituzte artistek.

Akrobaziaren arloak bere baitan "normaltzat" duen "perfekzioaren" bilaketan topatu dute elkar bi akrobatak eszenatoki gainean. Bide horretan oztupo diren ezadostasunek, arazoek eta enpatia faltak, sentitzen direna eta besteek beraiegan ikusten dutenaren artean dagoen aldea aztertze-ra bultzatu ditu protagonistak. Nola identifika gaitezke erakusten dugunaren eta garenaren artean? Aske bizi dugu geure nortasuna? Genero eta rol estereotipoetatik abiatuz, guztiok bizi ditugun gurasotasun edo identitatea bezalako gaien zertzeladekin, botere harremanak ikusarazteko, zir-



Ostiral honetan Zubietako errebote plazan arituko dira, 19:00etan hasita.

UZTAILAK 16 OSTIRALA Erakustaldia eskainiko dute akrobazietan zoildutako bi profesionalek Zubietan

ku disziplinak akrobatikoak lengoaia gisan baliatzen dituen pieza da errebote plazan eskainiko duten Mikra ikuskizuna.

Gizarteari kritika egingo diote akrobatek ikuskizunarekin. Estereotipoetan oinarrituz, besteek gugatik pentsatzen duten horren ezberdin sentitzeak batzen ditu norbanakoen mikrak.

Zirku disziplinetatik datoz antzerkitik baino gehiago, eta zirkuaren balio komunikatzaile eta trasformatzailean sinistuz, gizartearen iruditegia aldatzeko, hau guztia mikraren txikitasunetik kontatu nahi dute denak berdinago sentitzeko.

Larunbatean, Eneritz Furiyak Astiazaran sagardotegian

■ 19:00 Astiazaranen.

■ Sarrerak: 15 euroko bonua (kontzerturako sarrera, sagardo tragoa eta pintxo) edo 39 eurokoa (sarrera, sagardo tragoa, pintxo eta afaria).

■ Erreserbak: sagardoa.eus

Levon Aronian xakeko maisua Usurbilen izan da

Nazioarteko xake jokalaririk onenak Iruñean izan dira egunotan. Tartean, Levon Aronian armeniarra, bosgarrena maisu handien rankingean. Uztailaren 7an Usurbilgo Kaffan izan zen gosaltzen. Senide bat omen du Aginagan bizitzen.



Levon Aronian eta Iñaki Larrañaga, Kaffako nagusia.

Jakin Jardunaldiak egunotan

Ostegun eta ostiralean hausnarketarako eta esperientziak partekatzeko tartea Udarregi Ikastolan; UEU-ren 49. udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldia: "krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundera beste biderik bada?", hortxe jorratuko duten gaia. Besteak beste, atez ateko bilketaren esperientzia aurkeztuko du Usurbilgo Udalak.

■ Uztailak 15 eta 16.

■ Tokia: Udarregi Ikastola.

■ Matrikulazio epea uztailaren 9an itxi zen.

Informazio gehiago:
ueu.eus

Bi lan eskaintza Udarregi Ikastolan

Lehen lan eskaintza:

- Kirolaren eta Jarduera Fisiokoaren Zientzien Gradua.
- DBHko Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra.
- Eskaintzaren lanaldia: %39. 13 or. 40' (8 klase zuzenak eta gainerakoak prestaketa orduak).

Bigarren lan eskaintza:

- DBH-n fisika-kimika eta matematika irakasteko.
- Zientzian Graduondoa (Master Titulu Ofiziala edo Lizentziatura).
- DBHko Irakaskuntza Gaitasuneko Masterra.
- Eskaintzaren lanaldia: Lanaldi

osoa. Ordezkapen bat egiteko.

Interesdunak:

- usurbil@ikastola.eus curriculumak uztailaren 17ra arte jasoko dira.
- EGA edo baliokidea.



Udal-gobernu taldea: “Usurbilgo EAJk ez du proposamen berririk”

Usurbilgo Udalak aurreikusi gabeko diru sarrera batzuk izan ditu. Honi esker, 2021eko udal aurrekontuetan 207.000 euro gehiago izango ditu eskura. “Ekainaren 24ko osoko bilkuran aurrekontuari kreditu hori gehitzea erabaki genuen, bai eta diru hori zertara bideratu ere”. EAJk aurka bozkatu zuen. “Guztiz errespetagarria eta zilegi”, dio EHBilduk gidatzen duen udal-gobernu taldeak. “Kontua da bi urteotan behin eta berriz, hamaika batzordetan, erantzun ditugun eskaerak egin zituztela, nahiz eta batzuk jada martxan egon modu batean edo bestean”.

Lau proiektu bideratuko dira ezohiko diru sarrerarekin

207.000 euro horiek lau proiektu martxan jartzeko erabiliko ditu udal-gobernuak: “udal brigadarentzat hondeamakina erosiko da (171.000 euro); Harane futbol zelaian harmailak eraikiko dira (13.000 euro); Oiardo kiroldegian altueran lanak egiteko elebadore bat erosiko da (5.000 euro) eta sargardoari buruzko ikerketa antropologiko bat egiteko 18.000 euro bideratuko dira”.

Hondeamakina, baliabide propioen aldeko apustuaren adierazgarri

Erabaki hauen aurrean, EAJ kritiko agertu zen. “Kreditu gaikuntzaren zati handiena hondeamakina berri batean gastatzea ez zaigu bidezkoa iruditzen”, zioen Usurbilgo alderdi jeltzaleak. Hitz hauen aurrean, udal-gobernu taldeak argibide batzuk eman nahi ditu. “27 urte ditu egungo hondeamakinak. Hamaika herri-lan eta obra egiteko baliatzen da, Udalak baliabide propioen alde egiten duen apustuaren adierazgarri”.



“Bi urteotan behin eta berriz, hamaika batzordetan, erantzun ditugun eskaerak egin dituzte EAJkoek, nahiz eta batzuk jada martxan egon modu batean edo bestean”. Argazkia, artxibokoa.

UDAL-GOBERNUA

“Adostasunetara iristeko prest gaude, hainbat eta hainbat proiektutan egin bezala. Herriak irabaziko du”

“Usurbil FT taldearekin adostu dugu harmailen konponbidea”

Haraneko harmailak ere ika-mika iturri izan dira EHBildu eta EAJren artean. “Usurbil F.T.-rekin landu eta adostutako konponbidea landu dugu”, dio udal-gobernuak, “baina EAJk ez du gustuko”.

“Bidegorrien eskumena Aldundiarena da”

Usurbilgo EAJren eskaeren artean, Txikiardi eta Usurbil arteko bidegorria dago. “Bidegorri hori egiteko eskumena Diputazioarena da”, dio udal-gobernu taldeak. “Beste proiektu batzuekin egin bezala (esaterako, Ostapeko biribilgunea) aurreproiektua guk egiteko asmoa adierazi izan diegu Foru Aldundiko arduradunei”. Aldundiak ez du begi onez ikusi eta “eginez gero, ez dutela aintzat hartuko erantzun izan digute, nahiko harroputz. Behin baino gehiagotan azaldu dugu hau Udalean, baina EAJri

bost axola, antza”.

“Banda zabalaren inbertsioa Aldundiak finantzatuko du”

EH Bilduk gidatzen duen udal-gobernu taldeak dio gai hau aspalditik ari direla lantzen. Markel Olanok berak esana ei da Foru Aldundiak berak finantzatu eta kudeatuko duela inbertsioa ehuneko ehunetan. “Horren berri eman izan diogu EAJri, behin baino gehiagotan. Beraz, zertara dator berriz eskaera hau?”, galdetzen du udal-gobernuak.

Etxealdiko zubia

Etxealdiko zubia luzatzearen proposamena ez da berria. Egungo trenbide-pasagunean egingo litzateke, eta zubia gainetik pasako litzateke. Euskal Trenbide Sareak proiektua berriazteko lehiaketa jarria du martxan. “Beraz, ETS honek ari dela jakinik, zentzugabea da Udalak zubia luzatzea egun. Gainera, nahita ere, ezinezkoa dugu, zubia N-634 gainetik igarotzean, Diputazioari dagokiolako”, dio Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak gidatzen duen udal taldeak.

Adostasunetara iristeko prest
EHBilduren esanetan, “ez da

borondate politiko kontua, EAJk iradokitzen duen bezala. Batzordeetan eta gune ezberdinetan ematen diren azalpenak entzun eta ulertu nahi izatea da kontua, eta ostrukarena egiteari uztea. Betiko leloetan katramilatuta, betiko matrakarekin”. Legealdia osatzeko beste bi urte geratzen dira, eta EHBilduren udal-gobernuak eskua luzatu dio EAJri: “prest gaude adostasunetara iristeko, hainbat eta hainbat gai eta proiektutan orain artean egin bezala. Herriak irabaziko du”.

Santueneko Gure Elkarteko tabernaren esleipena

Uztailaren 23ra arte aurkeztu ahaliko dira eskabideak telematikoki, usurbil.eus atariko “Kontratatzailaren Profila” atalean. Horretarako “B@KQ txartela edo identifikazio digitalerako beste sistemaren bat edukitzea edo ateratzea” ezinbestekoa izango da. Argibide gehiago udaletxean edo 945 016 298 telefono zenbakian. Esleipen prozesua amaitu artean taberna itxita egongo da, baina jubilatuak arduratuko dira 17:00-20:00 artean irekitzeaz.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,
garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak,

peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizezko bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta onradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisies-

za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Usurbilen klaseak ematen dituen irakasle batek ingelesa, frantsesa eta euskarazko klaseak emango lituzke udan, etxetara joanda. 600766068 (Jokin)

Lepoko marroia duen txakur-

kume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzaintan utzi du. Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzaintara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaio herrian. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizpahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.

**Zorionak Noa!!**

Konturatzerako 7 urte handi beteko dituzu uztailaren 15ean. Oso, oso ondo pasako dugu eguna. Muxu potolo bat denon partez.

**Zorionakkk Lide!**

9 urte bete zenituen uztailaren 6an. Muxu potolo bat etxekoan partez.

**Zorionak amona Pilar!**

Uztailaren 14an 89 urte! Guztiok opa dizugu zuri zoriontsu izatea. Maite zaitugu!

Heriotzak

**Joxe Antonio
Etxeberria
Maioz**

Uztailaren 9an
hil zen, 87
urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 16 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 18 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 19 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 20 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 23 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda uztaila

15 osteguna

- **Jakin Jardunaldia.** UEU-ren 49. udako ikas-taroak, Jakin Jardunaldia Udarregi Ikastolan.
- **Buruntzaldeko autobus zerbitzuaren inguruko bilera.** 19:00etan Sutegin.
- **Laboaren Uztaila: Ibon RG eta Enrike Hurtado.** 22:00etan Mikel Laboa plazan.

16 ostirala

- **Jakin Jardunaldia.** UEU-ren 49. udako ikas-taroak, Jakin Jardunaldia Udarregi Ikastolan.
- **"Mikra" kaleko zirku garaikideko pieza** 19:00etan Zubietako errebotte plazan.

17 larunbata

- **Eneritz Furyak-en kontzertua** 19:00etan Zubietako Astiazaran sagardotegiko terrazan.
- **Floxbin eta Idoia Asurmendiren kontzertua** 22:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.
- **Bi pelikula eskainiko dira Santuenean.** Informazio gehiago 14. orrialdean.

Kultur Bira: Idoia Asurmendi eta Floxbin Aginagako Eliza Zaharrean

Floxbin 2013an sortutako talde usurbildarra da. Metal estiloa ardatz duten abesti indartsu eta hitz zorrotzekoak dira eurenak. Idoia Asurmendi gazte donostiarra bestetik, ibilbide oparoa osatzen ari da. Biak ala biak Aginagan arituko dira larunbat honetan.

Uztailak 17, larunbata

- 22:00 Floxbin eta Idoia Asurmendi zuzenean, Aginagako Eliza Zaharrean.
- **Edukiera:** 65 lagun.
- **Sarrerak:** uztailaren 15era arte, usurbilkultura.eus atarian (herriar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).



Uztailaren 15era arte eskura daiteke sarrera bat usurbilkultura.eus atarian.

Informazio gehiagorako egitarau osoa:
usurbilkultura.eus

Eneritz Furyak kantariaren kontzertua Astiazaran sagardotegian

Eneritz Furyak musikariak 'Emadan' diskoa aurkeztu zuen urte hasieran, bakarkako ibilbidean plazaratu duen hirugarrena. Larunbat honetan Zubietako Astiazaran sagardotegian arituko da.

- **Eneritz Furyaken kontzertua.** Arratsaldeko 19:00etan Zubietako Astiazaran sagardotegiko terrazan.

■ **Sarrera:** 15 euro. Kontzerturako sarrera, sagardo tragoa eta pintxoak. Bi web orrialde hauetako batean egongo da erreserbak egiteko aukera: sagardoa.eus eta bertosarrerak.eus web orrialdeetan.

- **Saioak ordu eta laurdeneko iraupena** izango du, eta nahi duenak afaltzen gelditzeko aukera izango du.

Datozenak

Aire Ahizpak taldearen kantaldia Mikel Laboa plazan

Miren, Amaia eta Paxkalin Xalbador bertsolariaren bilobak dira eta familia giroan ikasitako bertsoak eta kanta herrikoiak eskaintzen dituzte. Duela urte batzuk "Bidexka" diskoa plazaratu zuten Erroa argitaletxearekin. Mixel Labegerie, Eñaut Etxamendi, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete eta Xalbadorren abestiak moldatu zituzten.

Uztailak 22 osteguna

- 22:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Izen ematea:** uztailaren 20ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.
- **Edukiera:** 78 lagun.
- **Oharra:** giro euritsua bada, kontzertua Sutegin izango da.
- **Antolatzailea:** Laboaren Uztaila.



Miren, Amaia eta Paxkalin, Aire Ahizpak, Xalbador bertsolariaren bilobak dira.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

GERTU

**USURBILGO HERRI
MERKATARITZA,
HERRITARRAREKIKO
GERTUEN,
ZERBITZURIK ONENA
EMATEKO**

hurbilag

USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Usurbilgo Udalak

Edertu zaitez!

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROFONIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

• ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELLULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZINURREN LELINKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Inar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROKOLITIA BOTOXTERAPIA
munalurra 2, USURBIL 943 571680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Ile mota guztiak. Pertsona mota guztiak.

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

mistoa

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951